

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroak 200 enpresa sartuko ditu LH dualean eredia ezartzen den lehen urtean

*Hori da LH eredu berriko proiektuetako bat, lan-merkatuko eskariari erantzuna eman eta ekintzailtza eta autoenpleguari mesede egiteko.*

Miércoles, 13 de noviembre de 2013

Nafarroako Gobernuak, aurtengo ikasturtean, 200 enpresa sartuko ditu Lanbide Heziketa (LB) dual berrian. Aurten ezarri da eredia Nafarroako hamabi ikastetxetan proba gisa, gaur, asteazkena, Foru Gobernuko kideek egin duten saioan jakin dutenez.

José Iribas Hezkuntza kontseilariak aurkeztu ditu

Lanbide Heziketaren arloko jarduera-ildo nagusiak. Ildo horien helburuak enpresen mundura are gehiago gerturatzea eta berrikuntza, sormena eta kultura ekintzailea sustatuta ikasleen pentsaera aldatzea dira.

Horri lotuta ere, ikasturteko beste berrikuntzetako bat Ideiagintza proiektuaren garapena da. Proiektuaren bidez, Nafarroako enpresek aurtengo ikasturtean Nafarroan heziketa-ziklo eta -programak ikasten ari diren 10.000 ikasleek, baita berriki, ahal dela azken bost urteetan, LHko tituludun bihurtu direnek ere, sortutako hamabi negozio-ideia garatzen lagunduko dute.

### 360 ikasle LH dualean

LH dual berriak ikastetxeko eskola teorikoak eta enpresetan burutzen diren trebakuntza praktikoa bateratzen ditu, eta aurtengo ikasturtean proba gisa ezarri da Hezkuntza Departamentuak sustaturiko deialdi publikoan parte hartu zuten hamabi ikastetxe nafarretan.

Zehazki, hamasei espezialitatetan ezarri da (bederatzi goi-mailakoak, lau erdi-mailakoak eta lanbide-hastapen bereziko hiru programa), 360 ikasle ari dira parte hartzen eta automozioa, mantenimendua, logistika, elikadura eta ile-apainketa bezalako sektoreetako 200 enpresa inguru ari dira elkarlanean.

Modalitate duala ezarri duten ikastetxeetatik zortzi publikoak dira. Horietatik, sei Iruñean daude -Hezitzaile Eskola IB ("Haur Hezkuntza" goi-mailako zikloan), Nekazaritza eta Basogintzako IB ("Abeltzaintza eta albaitaritzako laguntzailea" goi-mailako zikloan), María Ana Sanz Administrazio, Merkataritza eta Informatikako IB ("Merkataritza" erdi-



Automozioaren sektoreko LHko ikasleak.

mailako zikloan eta "Bulegoko laguntzailea" eta "Merkataritza" lanbide-hastapen bereziko programetan), Cuatrovientos ITC LHIP ("Garraioa eta logistika" goi-mailako zikloan), Nafarroako Osasun Eskola Tekniko Profesionala ("Diagnosi-irudiak" goi-mailako zikloan) eta San Juan-Donibane BHI ("Arotzeria eta altzarigintza" erdi-mailako zikloan)-, bat Tafallan -Tafallako IB Politeknikoa ("Haur Hezkuntza" goi-mailako zikloan eta "Mendekoentzako arreta" erdi-mailako zikloan)- eta beste bat San Adrianen -Ega BHI (grado superior de "Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea" goi-mailako zikloan)-.

Halaber, Iruñeko Salesianos IB Politekniko Pribatua ("Fabrikazioko produkzioaren programazioa" eta "Automatizazioa eta robotika industrial" goi-mailako zikloetan), Iruñeko Hijas de Jesús ikastetxea ("Bulegoko laguntzailea" lanbide-hastapen bereziko programan), eta Uharteko Eraikuntza Lan Fundazioa (" Eraikuntza-makineria erabiltzea eta mantentzea erdi-mailako zikloa) itunpeko ikastetxeetan ere ezarri da, baita itunik gabeko Iruñeko Ramiro Mata LHIP ikastetxean (" Ile-apainketa" erdi-mailako zikloan) ere.

### **LH dual malgua**

Alor horretan, Nafarroaren berezitasuna 1529/2012 Errege Dekretuak jasotzen duen estatuko oinarritzko araudia aplikatzeko malgutasuna izan da. Foru Komunitatean, beste eskualde batzuetan ez bezala, estatuko araudia ez zehaztea aukeratu da ikastetxeei autonomia handiagoa emateko, baita heziketaren egutegia eta ordutegia ezartzeko malgutasuna ere, ikastetxeetan zein lantokietan.

Asmoa LH duala sektore ekoizle bakoitzaren premia espezifikotara egokitzea da. Izan ere, ez dira modu berean burutzen nekazaritzaren alorreko modulu bat, ikasleek erein eta uzta bildu behar dutenean, eta praktikak epe laburragoan egin ditzakeen beste alor bat.

Edonola ere, modalitate duala baldintza batzuek arautzen dute, esate baterako, prestakuntza osoaren % 33, gutxienez, enpresan gauzatu behar da. Ahal dela, erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloen bigarren ikasturtean egiten da. Beka/soldatarik ematea eskatzen ez den arren, ordaintzea gomendatzen da (ikasle parte-hartzaileen % 80k kobratu egiten du).

### **Enpresek 12 negozio-ideia babestuko dituzte**

Bestalde, Nafarroako enpresek, ikasturte honetan, LHko ikasle eta tituludun berriek (ahal izanez gero azken bost urteetakoak) proposaturiko hamabi negozio ideia garatzen lagunduko dute Ideiagintza proiektuaren barruan. Proiektuaren helburua negozio-ideiak jaso eta ebaluatzea da, gero, horiek oinarri, Nafarroan ekintzailatza eta autoenplegua sustatzeko.

Duela gutxi itxi den lehen deialdian hogeit hamar negozio-ideia aurkeztu dira; hamabi ikastetxetako 41 pertsonak parte hartu dute bertan. Ideia horietatik hamabostek zerbitzuen sektorearekin dute zerikusia, hiruk industriarekin eta batek nekazaritzaren alorrekin. Azken proiektuak zerbitzuen eta nekazaritzaren sektoreak bateratzen ditu.

Ideia horien artean hamabi garatuko dira, LHko irakasleek, CEIN enpresa publikoko ekintzailatzako profesionalak eta kasuan kasuko sektoreko enpresaburuek osaturiko diziplina anitzeko talde baten laguntzarekin. Lehen fasean proiektua garatzeko aholkularitza eskainiko da eta, bigarrean, ideia abian jartzeko babesa emango da, gutxienez bi hilabetez.

### **Pentsaera aldatzea**

Ideiagintza proiektua Nafarroako Lanbide Heziketan azken urteetan egin den lan metodologikoagoaren emaitza da, berrikuntza, sormena eta kultura ekintzailea sustatuz LHko ikasleen pentsaera aldatzeko helburuarekin.

Horretarako, Caja Navarra Fundazioarekin batera, Équilicúa proiektuan ari dira lanean. Hiru ardatz ditu oinarri:

- "Enpresa eta Ekintzailatza" modulua goitik behera berrikustea. Heziketa-zikloaren bigarren ikasturtean eskainiko da, ikasleek orduan izango baitute euren jarduerak burutuko dituzten sektore profesionalaren ezagutza sakonagoa.

- Ikasgela birtuala sortzea, "Enpresa eta Ekintzailtza" modulurako eduki berri eta metodologia berriarekin. Ataria ia LHko ikastetxe guztietara zabaldu da, 1.400 ikaslerentzat, eta enpresak kudeatzeko simulatzaileak, adituen aholkularitza etab. ditu.

- Berrikuntzaren, Sormenaren eta Ekintzailtzaren Astea, Iruñeko goi-mailko zikloetako bigarren ikasturteko ia ikasle guztiak elkartzen dituena, berrikuntzaren, sormenaren eta ekintzailtzaren funtsezko elementuak sakontzeko. Aurten 2.000 ikasle baino gehiagok parte hartu dute.

### **Ia 10.000 ikasle**

Aurten, Nafarroan, 9.820 ikasle ari dira heziketa-ziklo eta -programak ikasten. Horietatik 3.946 erdi-mailako zikloak ari dira ikasten, 4.109 goi-mailako zikloak, 1.184 Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programa Bereziak eta 581 goi-mailara pasatzeko proba prestatzeko ikastaroak.

Kopuruak gora egin du azken urteetan (2011-2012 ikasturtean 8.836 ikasle izan ziren eta 2012-2013 ikasturtean 9.410). Batxilergoa ikasten ari diren 9.058 ikasleen kopurua gainditzen du.

Gogorarazi beharrekoa da, ikasturte honetarako [LHko hezkuntza-eskaintzak](#) 86 heziketa-ziklo dituela, horietatik 81 aurrez aurrekoak (50 goi-mailakoak eta 31 erdi-mailakoak) eta 5 urrutikoak (3 goi-mailakoak eta 2 erdi-mailakoak). Halaber, 14 ikastetxetan prestatzeko ikastaroak eskaintzen dira eta hainbat modalitatetako 55 hasierako lanbide kualifikazioko programa.

Nafarroan goi-mailako eta erdi-mailako heziketa-zikloak ematen dituzten 29 ikastetxe daude. Horietatik 21 publikoak dira, 6 itunpekoak 2 itunik gabekoak.